

IRAGANA, GATZA ETA ETORKIZUNA



LEHENENGO LAN SAIOA

MEMORIA

IRAGANETIK ETORKIZUNA PROIEKTATUZ

NOIZ: 2017-09-20

NON: Leintz Gatzagako Kultur Etxea

PARTE-HARTZAILEAK: 28 pertsona; 13 emakumezko eta 15 gizonezko

AZTIKER-EKO TEKNIKARIAK: Xabi Luke eta Markel Ormazabal



1. AURKEZPENA

Joanes Mendizabal zinegotziak ongi etorria eman die gaurko saiora etorri diren herritarrei eta jarraian, "Iragana, Gatza eta Etorkizuna" partaidetza prozesuaren nondik norakoak azaldu ditu.

Prozesuak bi helburu nagusi izango ditu:

- ✓ Udalak gatz iturburuaren ustiaketarako egindako proiektua aurkeztu eta herritarren ekarpen eta iritziak jasotzea.
- ✓ Herriaren etorkizunaz hausnarketa egitea eta erronka eta behar nagusiak identifikatzea.

Landa garapen proiektuari norabide komuna emateko, ezinbestekoa izango da herritar eta eremu ezberdinen arteko elkarlana eta harremanak garatzea. Herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko, beraz, hiru lan saio antolatu dira:

IRAILAK 20: Iraganetik etorkizuna proiektatuz

IRAILAK 27: Gatz iturburuaren proiektua ezagutu eta ekarpenak egin

URRIAK 18: Etorkizuneko proiektzioan sakondu: erronka nagusiak eta lehentasunak

Zinegotziak herritarrek saioan parte-hartzeko agertu duten disposizioa eskertu ondoren, AZTIKER Soziologia Iker-guneko teknikariek gaurko saioaren helburuak eta saioan erabiliko den lan-eskema aurkeztu dituzte.

"Iraganetik etorkizuna proiektatuz" izenburuko saioak bi helburu nagusi ditu:

- a) Testuinguruaren kokapen bat egin eta eragile – elkarre – norbanako bakoitzak herria ulertzeko duen eran gerturatze bat egitea da.
- b) Herriak izan duen bilakaera ezagutzea eta kontakizun hori konpartitzea, abiapuntua partekatua eta elkar onartua izatea, alegia.



2. LEINTZ GATZAGAREN ERREALITATEARI LEHEN HURBILPENA

Dinamika indibiduala:

Erronda baten bitartez Kultur Etxeko aretoan bildu garen lagunok gure burua aurkeztu dugu.

Aurkezpenak amaituta, dinamizatzaileak lan saioko lehen dinamika azaldu du.

Leintz Gatzagaren indar-gune eta ahulguneak identifikatzeko helburuarekin, ariketa indibidualarekin hasi eta edukiak taldeetan hausnartzeko urratsak emango dira.



Hartara, parte-hartzaileei hiru fitxa banatu zaizkie banaka betetzeko.

Gogoeta indibiduala sustatzeko fitxetan ondorengo galderak edo abiapuntuak proposatu dira:

1. Herriak azken urteetan izan dituen mugarri nagusiak (denbora-lerroa)
2. Leintz Gatzagan bizitzeak/lan egiteak dituen hiru indar-gune edo hiru ezaugarri positibo, eta beste hiruna negatibo edo hobetzeko.
3. Leintz Gatzagak herri bezala dituen hiru erronka nagusiak, zeintzuk dira?



Talde dinamika:

Erantzunak edo fitxak jasota, bigarren dinamika egiteko antolatu dira parte-hartzaileak. Hiru lan talde sortu eta aurreko dinamikaren gai bakoitzean gehiago sakontzekok ariketa egin da.

Lan talde bakoitzak lehen dinamikan landutako gai ezberdin bat sakondu du:

LAN TALDE LARANJA

Atzera begira: Leintz Gatzagak azken urteetan aurre egin behar izan dien erronken kontakizuna osatu du lehen lan taldeak. DENBORA-LERROA.

LAN TALDE BERDEA

Egungo egoeraren kontakizuna: egungo errealitatera gerturatzea egin dute lehen dinamikan bigarren galderari emandako erantzunetan oinarrituz. EGUNGO ERRADIOGRAFIA.

LAN TALDE URDINA

Aurrera begirako erronkak: lan talde honek, lehen dinamikan jaso diren erronken gainean lan egin du. Lehendabizi, erronka berriak identifikatzeko aukera izan du, beti ere gainontzeko herritarrek idatzitako erronkak kentzeko aukerarik gabe. Ondoren, erronka hauek ordenatu eta antzekotasunen arabera bildu ditu lan taldeak:

- Arlo ekonomikoarekin edota garapen sozioekonomikoarekin zerikusia dutenak batetik,
- Herri bizitza eta dinamikarekin zerikusia dutenak bestetik, eta
- Zerbitzu eta Baliabide publikoekin zerikusia dutenak, azkenik

Lan talde bakoitzak egindako lanaren berri eman du ondoren plenarioan.

Lehen bi lan taldeen edukiak eta ekarpenak prozesuaren abiapuntu eta kokapen gisa jaso eta konpartitu dira, gaurko saioaren helburu nagusiari jarraituz; hirugarren lan taldearen ekarpenak, berriz, hurrengo saioetan gehiago landu eta sakonduko direnez, ez dira plenarioan aurkeztu, nahiz eta memoria honetan jaso diren.

Bigarren dinamikan lehenengo ariketaren emaitzak erabili direnez, eta bigarren ariketa honetako fitxetan aurreko erantzun guztiak jaso direnez, jarraian bigarren dinamika honetarako baliatu ditugun koadroetan jasotako erantzunak soilik aurkezten dira, erantzunak bi bider ez zerrendatzeko.



2.1. TALDE LARANJA: DENBORA LERROA

Taldeko bozeramaileak plenarioan egindako ariketaren emaitzak azaldu ditu eta denbora-lerroa osatu da.



Idea nagusi bezala hiru gako azpimarratu behar dira Leintz Gatzagako historia hurbilean herria bizirik mantentzea ahalbidetu dutenak. Lehenik, herrian bertan **lanpostuak** sortzeko gaitasuna edukitzea; bigarrenik, kanpotik herrira bizitzera **etorritako** hainbat eta hainbat jende; eta, hirugarrenik, **eskolak** haurrak herrian hezteko emandako aukera dago.

Denboran zehatz kokatutako gertakariez gain, badaude Leintz Gatzagako bizitzan eragina izan duten beste batzuk ere; hala nola, autobus lineak hainbatetan izan dituen ordutegi eta maiztasun aldaketak; Udal gobernua osatzeko bolondresak lortzeko beharra leu urtetik behin...



DENBORA LERROA-ATZERA BEGIRA

1980: Dekadentzia. Literalki “mugimenduan” dagoen herria izanik, erortzeko arriskua nabaria da. Ondorioz eraikitako harri-lubetak (escollera) etorkizuna bermatu zien herriko eraikinei eta herriko bizitzari. Gero, etxe berriak egin ziren, eta horrek lehen migratuak ekarrarazi zituen biztanleria handituz eta herrian mugimendua sortuz. Auzolanean hainbat gauza egin ziren, gazte taldea sortu zen, Sorginak emakume taldea sortu zen...

1965: Gatz Fabrika


1990: Hotela eta denda zabaltzen dira. Gainera, museoa ere indartzen da. Ondorioz, lanpostuak ere sortzen dira.

- Gazteak herrian.
- Azpiegitura hobetzen da.

2000: Eskola eraikitzen da.

- Konposta
- Depuradora

1988-89: Gatz museoaren hastapena ematen da; Jakion; Gatzainusketa; Artisauen mugimendua...



2.2. TALDE BERDEA: GAUR EGUNGO ERRADIOGRAFIA

Taldeko bozeramaileak plenarioan egindako ariketaren emaitzak azaldu ditu eta indar-gune eta hobetzeko daudenen arteko taula osatu da.

EZAUGARRI POSITIBOAK

- Herriaren ingurunea eta lasaitasuna.
- Herritarren arte gertutasuna eta elkarbizitza.
- Jarduera kulturala
- Zerbitzuak: eskola, medikua...
- Euskararen ezagutza eta erabilera.
- Natur baliabideak: Basoa, gatza, ehiza
- Herrian lan eta bizitzeko aukera
- Belaunaldien arteko harremana eta aniztasuna.
- Auzolana, sormena eta espiritu eraikitzailea.

HOBETZEKO EZAUGARRIAK

- Lanerako aukera falta
- Garrio publiko falta
- Gazteentzako eskaintza urria
- Proiektuetarako baliabide ekonomiko falta.
- Txakurrekin arazoak
- Hainbat zerbitzuren falta.
- Kritika asko egiten da herrian orokorrean.
- Helduentzako zerbitzu gutxi.
- Bidegorria
- Gainontzeko instituzioekin harreman gutxi.
- Aparkaleku mugatua.
- Etxe huts asko daude.
- Baserri eta kaleko beharren arteko ezberdintasuna.

Nahiz eta herritarrentzat aparkatzeko toki nahikoa dagoen, gaiak eztabaida sortu du, asteburuetan malgutasuna badago ere astean zehar isunak jartzen dituztelako. Bereziki, kanpotik jendea erakartzen duen ekitaldiren bat badago sortzen da gatazka.



2.3. TALDE URDINA: AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Aurrera begirako erronkak: lan talde honek, lehen dinamikan jaso diren erronken gainean lan egin du. Lehendabizi, erronka berriak identifikatzeko aukera izan du, beti ere gainontzeko herritarrek idatzitako erronkak kentzeko aukerarik gabe. Hauek dira parte-hartzaileek egin dituzten ekarpen eta proposamenak. Batzuk behin eta berriro errepikatu dira, eta errepikapenen zenbatekoa jaso baldin bada ere, jarraian ideia aurkezten dira, zerrenda luzeegia ez izateko:

- Gazteak hemen geratzea lortzea
- Bidegorria lortzea ez geratzeko isolatuta
- Definitu zer herri mota nahi dugun
- Herriak dituen zerbitzu denak mantendu eta garatu/hobetu
- Proiektu berriak/berritzaileak sortu
- Biztanleen partaidetza garatu
- Gatzaren ustiaketa finkatu
- Garraioa hobetu, komunikazioa erraztuz, errepide, zein bidegorri, zein mendi bideetan
- Natura eta ura zaindu
- Herrian espazio egoki bat kultur espresioetarako
- Herria bizirik mantendu. Ez dadila lo egiteko eraikitzen diren etxe politez bete
- Herria Euskal Herrira zabaldu
- Lanpostuak sortu
- Komunikazio-bideak hobetu
- Bidegorria konektatu
- Energia berritzaileak atera
- Eskola publikoa mantendu
- Turismora begira, beste indar bat bultzatu
- Autobus linea hobeto antolatu
- Kotxe elektrikoentzako tomak jarri
- Sentirse parte de un proyecto común como lo relacionado con un proyecto en el museo de sal
- Un espacio donde se relacionen los grupos que actúan en Gatzaga
- Una mejor comunicación y transporte con Debagoiena
- Garraioa, eskola, kultur eskaintza, turismoa eta etxebizitzak
- Leintz-Gazitzen, parekidetasuna eta gazteak erakarri Gatzagan bizitzeko



Mejorar el tema de los aparcamientos y que la tienda fuera más grande y más accesible

Herriko gatza kanpora zabaldu, eskola mantendu, jende gaztea erakarri eta bertakoa mantendu, eta ur gazia aprobetxatuz balneario bat.

Viviendas para que los jóvenes puedan quedarse en el pueblo

Solucionar los problemas de aparcamiento y mejorar los servicios de transporte.

Bidegorria konektatu Eskoriatza eta Araba

Ibilbideak berriztu eta museoa eta gatz produkzioa hobetu

Eliz-etxea eskuratu

Baserriak ez abandonatzen utzi

Etxebizitza hutsak, erortzen ari direnak konpondu

Realizar un estudio geológico (para poder ampliar las casas)

Legislaturak aurrera ateratzea herriko jendearekin batera

Kudeaketa –udaletxearen gestioa- iraunkortasuna

Beste instituzioekin harremana indartzea (G.F.A, E. J.,...)

Garapen sozioekonomikorako tresnak sortzea: egitura edo forma juridiko ezberdinak sortu instituzioekin harremanak egiteko; lan postuak sortu...

Etxebizitzak aukeran ezartzea

Enplegua sortzea herrian nahiz baserrietan

Nekazaritza aukerak identifikatu eta sustatzea

Que pensemos más en los que vivimos que en los que vienen

Que se haga mantenimiento de lo que tenemos: edificios, instalaciones...

No olvidar nuestra identidad

Que tenga más servicios.



Ondoren, erronka hauek ordenatu eta antzekotasunen arabera bildu ditu lan taldeak:

- Arlo ekonomikoarekin edota garapen sozioekonomikoarekin zerikusia dutenak batetik,
- Herri bizitza eta dinamikarekin zerikusia dutenak bestetik, eta
- Zerbitzu eta Baliabide publikoekin zerikusia dutenak, azkenik

AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK SAILKATZEN		
EKONOMIA ETA GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA	HERRI BIZITZA	ZERBITZU ETA BALIABIDE PUBLIKOAK
Gatza eta gatz-ustiaketaren inguruko proiektuak Populazioa edo biztanleriari lotutako proposamenak (gazteak...) Turismoa Nekazaritza eta basoak Instituzioekin harremanak Instituzioekin harremanak egiteko tresnak sortu Energia berriztagarriak Gaztaimuzketa Etxebizitza: hutsak eta berriak ...	Herriko elkarteak indartu Parekidetasuna Udalaren iraunkortasuna Herriko nortasuna indartu Azpiegiturak kultur ekintzetarako Herrira etorri-berriekin lanketa Partaidetza ...	Eskola Elizaren lokalak eskuratu Etxebizitza publikoa Garraioa Bidegorriak Saltoki edo denda handitu Kultur jardueretarako espazioa ...



3. AGURRA

Gaurko lan saioari amaiera eman aurretik, AZTIKER-eko dinamizatzaileek atzera berriro gogoratu dituzte datorren urratsak zein izango diren, eta zehatzean, datorren lan saio noiz eta zertarako antolatu den:

IRAILAREN 27, ASTEAZKENA, arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxean

Gatz iturburuaren proiektua ezagutu eta ekarpenak egiteko lan saioa:

Gatz iturburuaren ustiaketa proiektua aurkeztu eta ekarpenak jasoko dira.

Halaber, saioetako memoriak eskuratzeko parte hartzaileek zein aukera dituzten ere azaldu da. Saioan zehar parte hartzaileen kontaktuak jaso dira eta hauei korreoz helaraziko zaie; korreorik ez duten herritarrek, berriz, Udaleko webgunetik deskargatu edo udalean bertan inprimatutako kopia eskatzeko aukera izango dute.

Gaurko lanak amaituta, beraz, hurrengo urratsen arrastoa jarri gara.

Mila esker egindako ekarpen eta lanagatik.



Leintz Gatzagan, arratsaldeko 19:30etan, 2017ko irailaren 20ean.

